

PROGRAMAZIO LABURRA

IKATETXEAREN IZENA	Olabide Ikastola								2017-2018		
ARLOA / GAIA	Anatomia aplikatua (Batx 1)							DATA			
ETAPA - MAILA	1 DBH		2 DBH		3 DBH		4 DBH		1 BATX.	X	2 BATX.

1	HELBURUAK: GUTXIENGO GAITASUN MODUAN DEFINITUAK
----------	--

1.– Organismoan eragina duten kanpoko eta barneko faktore desberdinak antzematea, eragin hau osasungarritzat ala patologikotzat ilustratuko duten adibide adierazgarriak eta zirkunstantziak adieraziz. Irizpide honen bidez, ikasleak zenbait faktore, adibidez tabakoa, drogak, kutsadura, elikadura okerra, eta abar, oreka-hausle gisa ikusteko gai ote diren eta osasunerako onuragarriak diren beste zenbait faktore daudela (dieta orekatua, gorputz-ariaketak, eta abar) jakitea nahi da, kasu bakoitzean oreka nola hausten den eta arazoa nola konpondu edo gainditu daitekeen jakinez.

2.– Gizonen eta emakumeen gorputza osatzen duten elementu desberdinak identifikatzea, adierazpen grafikoetan antzemanaz, anatomian zehar kokatuz eta hauen morfologia nahiz inguruko elementuekiko duten erlazioa azalduz. Ikasleak, gizonaren nahiz emakumearen gorputzaren atal desberdinak zerrendatzeko gai izatea, non dauden eta beste organoekin zein erlazio duten ba ote dakiten eta idatziz nahiz marrazki bidez, organo eta aparatu hauen osaera azaltzen jakitea. Morfologia xehekatua baino garrantzitsuagoak dira xehetasun edo erlazio handiak.

3.– Sistema, organo eta aparatu bakoitza bere oinarriko funtzioarekin erlazionatzea, hau nola burutzen den, nola azaltzen den eta beste sistemek edota aparatuek, urrutikoak izanik ere, nola laguntzen duten azalduz. Helburu honekin, ikasleek funtzio desberdinak, zatika nahiz osotasunean ulertzea ziurtatu nahi da. Era berean, funtzionamenduaren arduradunak diren aparatuek eta jardun hori lortzen laguntzen dutenak ezagutzen dituztela ere ziurtatu nahi da. Araketa fisiko baten bidez edo tresna sinpleen bidez aparatuen funtzionamendua ohikoa dela azaltzen duten zeinuak ere ezagutzeko gai izan behar dute.

4.– Gaiaren inguruan landutako testuak egoki interpretatzea, jartzen duena ulertuz, zein informazio-mota den antzemanaz eta aipatutako informazioa baloratuz, lan monografikoak eta ikerketa laburrak landu ahal izateko. Helburu honen bitartez, ikasleak ohiz erabilitako testuak (aldizkariak, liburuak, txostenak, eta abar) nolabaiteko autonomiaz erabiltzeko gai izatea nahi da. Horregatik da garrantzitsua azken emaitzaz gain burututako prozedurak eta izandako jarrerak baloratzea.

5.– Arakatzeko tresna batzuk, nola eta zertarako erabiltzen diren jakinez, nolabaiteko trebetasunez eta arretaz erabiltzea, lortutako datuak ordenatuta eta zehaztasunez erregistratzea eta, ahal bada, datu horiei interpretazio bat ematea. Ikasleek teknika sinpleak ikastea nahi da (garaiera edo pisua neurtzen, bizi-konstanteak hartzen,...), hala nola zorroztasuna, objetibotasuna, eta abar, erabiltzea.

6.– Organismoaren funtzioaren bati buruzko behaketa eta esperimentazio plan bat planifikatu eta betetzea, energi-iturria, funtzionamendua, azken emaitza, kanpoko sintomatologiari eta abarri buruzko azterketa eginez.

7.– Osasunaren eta ingurugiroaren aldeko zenbait jarreraz konturatzea eta ondorioz norbere jokabidea aldatzea, eztabaidetan parte hartzea, gizarte-foruekiko jakinmina azaltzea. Helburu honek, ikasleek osasuna zaintzeko jarreraren garrantzia ulertzea eta, gaitasun kritikoa eta errealismoa azalduz, pertsona gisa nahiz esparru honetan lan egin dezakeen langile gisa dagozkion zenbait arduraz jabetzea nahi da.

8.– Gaisotasun eta istripuak saihesteko segurtasun eta higiene-arauak aplikatzea, eta materialak eta produktuak arau hauei jarraituz erabiltzea edo uztea. Helburu hau, ikasleek gaisotasunen prebentziorako eta arriskuak

saihesteko zenbait ohitura eta trebetasun garatzen saiatzen da. Jokabide hauetako batzuk argi edo ez horren argi ikusi ahal izango dira beren jokabidearen bitartez; beste batzuk ordea, ikasleak berak emandako azalpenaren bitartez bakarrik baloratu ahal izango dira.

2 EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
ORD.	1. ebaluazioa	ORD.	2. ebaluazioa	ORD.	3. ebaluazioa
	Anatomia orokorra: Giza gorputzaren oinarriko antolaketa: zelula, ehunak, órgano aparatu eta sistemak. Osasuna eta gaixotasuna Heuste eta mugimendu sistemak: Hezur sistema, muskulu sistema, larruazala.		Mantenu sistemak: Liseri aparatua, Arnas aparatua Gernu aparatua Ugal aparatua		Zirkulazio aparatua Sistema linfatikoa Erlazio eta koordinazio sistemak: Sistema endokrinoa, Nerbio sistema, Zentzumen organoak

3 METODOLOGIA	
<p>Ikasleak bere ezagutza eraikitzen joango da. Horretarako irakasleak aktibitate ezberdinak planteatuko dizkio. Lan pertsonalak indar handia hartuko du. Hiruhilabete bakoitzean definituta egongo da ikasleak entregatu behar dituen lanak. Talde lana ere bultzatuko da.</p> <p>Laborategiko praktikek pisua hartuko dute. Animaliangan agertzen diren prozesuak behatuz gure kasuan gertatzen direnak ulertzeko.</p>	

4 BAILABIDEAK	
APUNTEAK (POWERPOINT)	

5 EBALUAZIO SISTEMA	
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK	

1. HIRUHILABETEA
 - a. Etimologia
 - b. Ardatzak, planoak eta norabideak espazioan **(0,25 ptu)**
 - c. Giza zelula (laborategi-praktika) **(ptu 1)**
 - d. Ehunak (talde lana + aurkezpena) **(ptu 1)**
 - e. Osasuna eta gaixotasuna (prebentzio mailak) **(0,25 ptu)**
 - f. Hezur-sistema **(ptu 1)**
 - g. Gihar-sistema (2 praktika **0,25x2**)
 - h. Oilaskoaren izterren disezioa (laborategi-praktika) **(ptu 1)**
 - i. Azterketa **(4 ptu)**
 - j. Jarrera **(ptu 1)**

2. HIRUHILABETEA
 - a. Larruazala
 - b. Digestio aparatua (marrazkia) **(ptu 1)**
 - c. Digestio aparatuen gaixotasunak kartulina lean **(ptu 1)**
 - d. Arnas aparatua (biriken praktika) **(ptu 1)**
 - e. Iraizte aparatua (Giltzurrunen disezioa) **(ptu 1)**
 - f. Ugal aparatua (talde lana + aurkezpena) **(ptu 1)**
 - g. Azterketa **(4 ptu)**
 - h. Jarrera **(ptu 1)**

3. HIRUHILABETEA
 - a. Zirkulazio aparatua
 - i. RCP triptikoa **(ptu 1)**
 - ii. Odol-analisiak **(0,5 ptu)**
 - iii. Mapa mentala **(ptu 1)**
 - iv. Pasapalabra **(ptu 1)**
 - v. Bihotzaren disezioa **(ptu 1)**
 - b. Sistema endokrinoa (Hormona b buruzko laburpena) **(0,5 ptu)**
 - c. Nerbio sistema + Zentzumenak (talde lana + aurkezpena) **(ptu 1)**
 - d. Azterketa **(3 ptu)**
 - e. Jarrera **(ptu 1)**

KALIFIKAZIOEN BALIO PORTZENTUALA	KONTZEPTUAK	33	PROZEDURAK	33	JARRERAK	33
----------------------------------	-------------	----	------------	----	----------	----

6	BERRESKURAPEN SISTEMA
Berreskurapen sistema azterketa baten bitartez izango da.	